

modu ontan muturrak
 austen ibiltzeko,
 ondo beldur zerate
 beñepin iltzeko;
 onak zaute ni jardum
 ninzan bezela bein,
 izketan egoteko
 gabirabarekin:
 —zer gauza ori, zion
 beste batek esan,
 nerekin pasa zana
 gogorra goa zan;
 erbi—iñudea-kin
 bein topoz egiñik,
 izutu ta aurrean
 eraman nuben nik:
 —zer gauza ori ere,
 lagunak segiran
 esan zion, zer gauzak
 denak ere diran;
 datozela nigana
 azeri zar denak,
 ez naute izutuko
 ni mutur berenak;—
 eta ura esatez

etzula bukatu,
 berriz zuben pistiyak
 leioa bulkatu,
 eta muturra pasa
 aren zulotikan,
 eta zuten denboran
 ikusi ura an,
 izuz ezin zutela
 billatu non sartu,
 iges bide berriyak
 baizituzten artu;
 nolapait irtenikan
 tellatu gañera,
 ill edo bizi andik
 salta zuten bera.

.

Beldurrik ezdanean
 olloaren gisan,
 balienteak asko
 oigerade izan;
 bañan estualdirik
 bada gertatutzen,
 orduban beste moduz
 baikera portatzen.

OTSOAREN AMETSAK



Otsoak egin zuben
 amets chit gozoa,
 arzaya illik, bere
 artalde osoa,
 gelditu zala jabe

gabe ageriyen,
 nor nai jabetu zedin
 moduban mendiyan;
 eta arrimaturik
 artaldea gana,

ezan zuben—badaukat
 emenchen zer jana.
 Lenengo ariyari
 nai diot eraso,
 au jan biet ezur ta
 mami dena oso:
 bañan, ez, onen zanko
 ta adar aundiyak,
 eztitu irichiko
 nere eztarriyak:
 obeko det lenengo
 ito nik ardiya;
 bañan, ez, zertan egin
 biet pikardiya;
 egun guchi barru du
 umea egingo,
 eta orduban puska
 biyak ditut jango;
 jan zadan bildotscho bat
 guri, bikañena
 au da ona, bai, ausen
 jan biet aurrena;
 bañan, ez, ez, beste au
 guriyago dago,
 emen dan onenchona
 bildoch au baitago;
 eta ura esatez
 itsatsirik ortzak,
 atera zizkan ustez
 zinzurreko otzak;

bañan esnaturikan
 kolpe egiñ artan,
 non arkituko zuben
 bildocha ortzetan,
 billatu zubena zan
 arbolaren puska,
 zeren ari erantsi
 baitzion ta ozka;
 eta ura ikustez
 oso penaturik,
 esan zuben,—jail! eztu
 bestek kulpik, det nik;
 egin naizen denboran
 ariyaren jabe,
 adarrak gatik utzi
 detala jan gabe,
 eta orain baneuka
 naiz izan zezena,
 bere adar ta guzi
 jango nuke dena.

.

Gure artean ere
 gertatzen da bera,
 daukagunean gauza
 guzitik aukera,
 au nai det, au eztet nai
 ibiltzen baikera,
 eta gero ainbestez
 jabetzen ezgera.

RAMON ARTOLA.

